

AUTOEBALUAZIO ARIKETAK

2.GAIA

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

- 1) «Ezagutzen, prozeduren eta jarrerren multzo bat, konbinatuak, koordinatuak eta integratuak, non norbanakoak 'egiten jakin' eta 'egoten jakin' behar duen, lan profesionalerako» definizioa... zer kontzepturekin lotuko zenuke?
 - a) Gaitasuna.
 - b) Helburu pedagogikoa.
 - c) Ikaskuntzaren emaitzak.
 - d) Ikaslearen trebetasunak.

- 2) Gaitasunak elementu hauek ditu:
 - a) Trebetasunak.
 - b) Jarrerak.
 - c) Ezagutzak.
 - d) Aurreko guztiak dira gaitasun baten elementuak.

- 3) Gaitasunetara bideratutako ikaskuntzari dagokionez, baieztapen hauetako bat okerra da:
 - a) Ikasleak du bere ikaskuntza prozesuaren gaineko erantzukizuna.
 - b) Irakaslea da hezkuntza prozesuaren ardatz nagusia.
 - c) Ikasleak edukiak kudeatzen ditu.
 - d) Ikasleak edukiak noiz eta nola ikasi erabakitzen du.

- 4) Gaitasunetara bideratutako ikaskuntzari dagokionez, irakaslearen zeregina da:
 - a) Estrategia metodologikoak planteatzea.
 - b) Hezkuntza prozesuaren ardatz nagusian kokatzea.
 - c) Planteaturiko estrategia metodologikoen bidez ikasleen jarduerak gidatu eta orientatzea.
 - d) a eta c zuzenak dira.

- 5) Erizaintza tituluan garatu beharreko gaitasunak dira:
 - a) 18 gaitasun orokor.
 - b) Oinarrizko prestakuntzako 15 gaitasun espezifiko eta Erizaintza Zientzietako 40 gaitasun espezifiko.
 - c) Practicumaren eta Gradu Amaierako Lanaren gaitasunak.
 - d) Aurreko guztiak dira erizaintza tituluan eskuratu beharreko gaitasunak.

ERANTZUNAK

Galdere zenbakia	Erantzun zuzena
1	a
2	d
3	b
4	d
5	d